



# 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

## BIZKAIERA

1. ABIZENA _____	2. ABIZENA _____
IZENA _____	NORTASUN-AGIRIA _____
AZTERKETA-EGUNA _____	AZTERKETA-TOKIA _____



Osakidetza  
Servicio vasco de salud



## ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak ariketa bi daukaz: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Ariketa bi honeek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dozuz.
- Irakurri eizuz ariketa bakotxaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoaz egin behar dira. Ahalegindu zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.



## 1. IRAKURMENA

**Ariketa-motea:** EGIA ala GUZURRA

**Zelan egin:**

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horren gaineko ariketea.
  - Ariketea egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtea gomendatzen deusugu.
  - **Ariketa-orrian** datozan esaldiak egia ala guzurra diran markau behar dozu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, 7 egin behar dozuz ondo.

### DIABETEAREN KONTRAKO BURRUKEA

Josu Feijoo mendizale gasteiztarra munduko mustur bietan egon da, Ipar-poloan eta Hego-poloan. Zortzi mila metroko hainbat menditan egon da; Shisha Pangmara igon dau, eta, laster, Everest aldera abiauko da. Puntako mendizalea da, nahiz eta egunero insulina-dosia hartu behar dauan. Feijoo diabetikoa da. Gaixotasuna orain dala 15 urte diagnostikau eutsien, 23 urte eukazala.

Josuk, halanda be, ez dauka diabetiko hilteko asmorik. Zelula amakaz ikertzen jarraitu behar dala pentsetan dau, horrek gaixotasuna osatzeko bidea erakutsi leikela pentsetan dau-ta. Berbetan hasi eta berotu egin da Feijoo, ez daualako gaixotasunagaz bizitza osoa emon gura. Eta gainera, pentsetan daualako osabideari ipinten jakozan ustezko traba etikoak 60 urtetik gorako "**jainkojale** zahartuek" ipinitakoak dirala; horreenak eta «lau boto miserableren truke ikerketea oztopatzen dabilzan politikarrienak». «Indarrak batu behar doguz, indarra egin behar dogu, ikertzen jarraitu ezkeru, gaixotasuna osatu leitekkelako» esan deutso *Berria*-ri.

**jainkojale:** santurrón, na



Feijook diabetegaz biziten ikasi badau be, gogoan dauka oraindino endokrinologoak barria emon eutsan momentua. Lur jota itxi eban: «Hasieran oso gogorra izan zan, batez be bizimodua guztiz aldatu beharko nebala esan eustalako; agur gaez lagunakaz urtetea, parrandak... Depresinoak jota itxi ninduan». Ez zoratzeko, gaixotasunaren gaineko informazioa batzen hasi zan, eta horri esker ikasi eban ahalik bizimodurik normalena zelan egin.

Bizimodua, dana dala, guztiz aldatu jakola dino; halanbeharrez, gainera. Amaitu ziran otorduak edozein ordutan egiteko eukan ohiturea, edo astegoienetan gura ebanean jagitekoa. Glukosa-mailearen neurketea momentu guztietan egin beharra egoan; hortik aurrera ondo neurtu behar eban zer jan eikean eta zer ez... Guztia zorrotz-zorrotza zala gogoratu dau: «Niri, behintzat, bizimodua guztiz aldatu jatan. Hori bai, onera. Orain askoz be metodikoagoa naz, txukunagoa, neurri baten». Argi dauka orain osasuntsu bizi ezkerro –zer jaten dan apur bat zainduta eta medikuek agindutakoa beteta–, diabetegaz biziteko ez dagoala aparteko arazorik. «Nik neuk ez dot sekula erre, zortzi urte daroadaz gaez urten barik, eta inoiz urten ezkerro, hiru edo lau garagardo besterik ez dot hartzen. Baina hori edonorentzat da ona, ez bakarrik gaixo gagozanontzat», dino.

Etxean diziplinari eustea ez jakon gatxa egin. Eta mendian? Zelan egin hain baldintza gogorretan horren bizimodu zorrotza egiteko? Gasteizen nahiko bizimodu ordenaua egiten dau, eta espedizinoetan be hori egiten ahalegintzen dala gaineratu dau. Ibilbideetako kideak, kide ezeze, lagunak be badira, eta erraza egin jako. Hasierako tirabiren ostean lortu dau hareekaz be bizimodurako jarraibide zehatzak finkatzea: «Nire gaixotasunagaz biziten ikasi dabe; oraingo, ezagunak ditue insulina-jiringak, badakie dosiak zenbatekoak diran eta badakie asko jan eta insulina gitxi hartu ezkerro, hipergluzemiak jota amaituko dodala». Ezustekorik gertatu ezkerro, zelan erantzun ikasi dabela azpimarratu dau: «Euren laguntzeari esker, igon dodan zortzi milako guztietara lez, Everestera be igongo dot».

***Berria egunkaria, 2003-11-15***  
**Egokitua**



## 1.1. ARIKETA-ORRIA

EGIA ala GUZURRA?

1. Fejoori diabetea 15 urtegaz diagnostikau eutsien, orain dala 23 urte.
2. Fejoo gasteiztarra poloetan eta Everest mendian egon da.
3. Fejoo haserre dago, ikerkuntzeari ipinten jakozan mugak dirala-ta.
4. Diabetikoa zala esan eutsienezan erreteari itxi behar izan eutsan Fejook.
5. Diabetikoa izan baino lehenago, Fejoo berandu jagiten zan astegoenetan eta edozein ordutan jaten eban.
6. Diabetikoa danetik bizimodua txarrera aldatu jako Fejoori.
7. Etxean diziplineari eustea gatxa egiten jako Fejoori; mendian, ostera, erraza.
8. Asko jan eta insulina gitxi hartu ezkeru, hipergluzemiak jota amaituko leuke Fejook.
9. Mendian dagoanean, berak bakarrik moldatu behar dau, han gatxa da-ta laguntzea eukitea.
10. Fejook zortzi urte daroaz gauez urten barik.



## 2. IDAZMENA

**Egitekoa:** INPRIMAKIA BETETEA

**Zelan egin:**

- Hurrengo orrialdeko inprimakia bete behar dozu.
- Ahalegindu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoaz idatzi behar dozu.

**GAIA:** Beharlekuan batzuek erreten dabe. Askotan esan deutsezu ez erreteko, baina ez deutesue kasurik egiten.

Bete eizu bulegoko inprimakia arduradunari egoerea azaltzeko eta eskaerea egin neurriren bat hartzeko.

*Oharra: Kontuan euki ez dozula eskutitza idatzi behar; ez idatzi, beraz, gutunetako ohiko agurrik ("eskaerea onartuko dozulakoan", "beste barik", "honenbestez agur"...). Hurrengo orrialdeko inprimakia bete behar dozu.*



Z  
I  
R  
R  
I  
B  
O  
R  
R  
O  
A





Osakidetza  
Servicio vasco de salud



Osakidetza  
Servicio vasco de salud



Osakidetza  
Servicio vasco de salud

# 1HE-IRAKURMEN-PROBA

## ZUZENKETA-ORRIA

**Irakurgaia:** "DIABETESAREN KONTRAKO BORROKA"

A eredua

**ERANTZUN ZUZENAK**

1	G	6	G
2	G	7	G
3	E	8	E
4	G	9	G
5	E	10	E

# 1HE-IRAKURMEN-PROBA

## ZUZENKETA-ORRIA

Irakurgaia: "DIABETESAREN KONTRAKO BORROKA"

B eredua

ERANTZUN ZUZENAK

1	G	6	G
2	E	7	E
3	G	8	G
4	G	9	G
5	E	10	E